



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
2005-06 IKASTURTEA

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

Bi aukeretako bat hautatu eta bertako lau galderak erantzun

A AUKERA

1. Aztergaia (2,5 puntu)

Lurzorua.

- 1.1 Espainia desertifikazio maila handiko herrialdea da. Aipatu horren arrazoi nagusiak, baita gaur egun antzematen ari diren ondorioak eta bereziki kalteberak diren eremuak ere.
- 1.2 Aipatu eta deskribatu lurzoruaeren degradazioaren mekanismo nagusiak.

2. Aztergaia. (2,5 puntu)

Baliabide hidrikoak.

- 1.1 Azaldu akuiferoen gehiegizko ustiapenak izan ditzakeen ondorioak.
- 2.2. Proposatu neurri batzuk uraren kontsumoa murrizteko ondoko sektoreetan: nekazaritzan, industrian eta hirietan.

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Dinamika ozeanikoa.


- 3.1. Ozeanoetako azaleko korronteek eragina dute kliman. Azaldu korronte horien funtzionamendua eta ondorio nagusiak.
- 3.2. Azaldu "El Niño" fenomenoak. Noiz gertatzen da?

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Ekosistema.

- 4.1. Definitu kontzeptu hauek: produktibitatea, eraginkortasun ekologikoa, lehiaketa eta zoko ekologikoa.
- 4.2. Espezieak sartzeari gain, aipatu ekosistemetan biodibertsitatea galtzea eragiten duten beste arrazoi batzuk.





B AUKERA

1. Aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide energetikoak.

- 1.1. Definitu “energia berriztagarria” terminoa. Azaldu labor zertan datzan eguzkiaren energia aprobetxatzea.
- 1.2. Azaldu energia hidroelektrikoaren abantailak eta eragozpenak.

2. Aztergaia (2,5 puntu)

Atmosferaren funtzio erregulatzaila eta babeslea.

- 2.1. Azaldu zergatik esaten den atmosferako zirkulazioa klimaren faktore erregulatzaila dela.
- 2.2. Atmosferaren zein geruzatan gertatzen dira atmosferako zirkulazioa eta fenomeno meteorologikoak? Hitz egin ezazu aipatu geruzaren ezaugarriei buruz.

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Ur zikloa.

- 3.1. Eutrofizazioa: kontzeptua, zergatiak eta ondorioak.
- 3.2. Zer helburu lortu nahi dira hondakin-uren arazketaren bidez? Azal ezazu labor ur-tratamendua nolakoa den.

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Nitrogenoaren zikloa.

- 4.1. Azal ezazu nitrogenoa finkatzen duten bakterioek eta bakterio nitrifikatzaileek zikloan duten eginkizuna.
- 4.2. Azal ezazu nekazaritzak nitrogenoaren zikloan duen eragina.

